


[11]

1972-Urtarr.

14





EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA

Lagunak, ez lokar:

Aditurik elkar

Dugun euskara sar

Eder, jori, azkar

Orotan!!

OXOBI

2 AINTZIN SOLASA

Nekez bederen, sobera gai bildu zaiku es-
kuetara eta dena ezin publiko. Hautapen bat egin
beharrean gertatu gara. Esan beharrik, batere sei-
nale txarra ez dela.

* * *

Urte berriak, asmo berriak, egin berriak
ekarri ohi ditu. Johan den urtean eman ditugun u-
rratsek, edo urrats erdiek baina, aintzinerat gohaze-
la, esan nahi dute. Bestalde, dinamika berezia naba-
ri zaie ikastolei. Burruka ona egin da. Jausia
da zenbait mito. Mugimerdu bezala ere koardinatze
handiagoa lortu da.

* * * *

Lortu dena, halere, denon obra da eta balo-
ratzea aski ona da, baina oraino egiteke dadukagun
bidez, zer diozu?

* * * * *

Bakoitzak ari duen lana, lan isila, funtse-
an premiazkoen den lana. Jende zabarrarekin, alfe-
rrarekin, ez da deus egiten ahal. Bakoitzaren lan i-
sila ere taldearekin josi behar da gero, harik-eta
bi alderdi hauk, bakoitzaren aportazioa eta taldea-

rena alegia, egitura berean bildu eta desarroila daitezzen.

* * * * *

Asmo berriak egite berrietan ditugu ma
tu behar. Ekin eta egin. Ez, ordea, nondik norat da
bilen ez dakien jendearen egiteak. Egite zehatzak,
elkarrekin pentsatu eta erabakitzat hartuak, eta el
karrekin mamiz edo giharrez jantziriko egiteak.
Egite hauen agerpen eta espresio dadila guretzat
urte berria.



HEL BURUAK MARKATZEKO BELDUA

Aurreko batetan aditzera ematen nuenez, heziketa neutrala ez da posible. Heziketaren non — dik-norakoa, ikusten lagun dezaiguketan beste bi — konzepto eman nahi ditut hemen, lehengo hariari jarraiki:

B/ KOLONIZAZIOA.

Sarritan entzun ohi dugunez, gure herriak ere ba du kolonizazio arazo bat garbitu beharra. Eta hemen ere gauzak nondik ikusi ezberdin gertatzen dira.

KANPOKO ikuspegia dei dezakeguna, herri kolonizazioa emana eta zabaldua izanik ere, hein batetan guregana dezakegu. Alderdi honetatik ikusiz gero, kolonizazio-ekintzaren asmo eta helburuak oso humanistik agertu ohi dira. Nola nekazaritzan hala kultura alorrean ere oso atzera ziren herri haie *i*, h*e*men go zibilizazioaren eta jakintzaren ondasunak *es* kaini zitzaizkien.

Beti ere apaiz bateren bat tartean zela eta izpiritu-ondasunak material-ondasunez gain jartzen eta baloratzen zirela. Batez ere gogoangarri dituguhau eraikitako eskolak, elizak eta hospitalak; kultural, erlijiozko eta sozial alorretan emandako pausoen agerpide. Eramandako ondasunen truke, ez haur ordaindu asmoz, askoz ere balio handiagoa baizuten, hango aberastasun batzuk ere ekarri zituzten, ez gehiegi, ordea. Ondasun haur lantzeko erabilitako bitartez ez da deus esanen.

Eta azkenik jakina, herri haur heldutasun nera helduz gero, ez zuten kanpoko amaren beharrik eta bere gisara joka zezaten askatasuna eman zitzaizkien. Beraz, helburua erdietsi eta obra amaitua zen.

Jakina, gure kasuan ez dela berdin gertazten, kolonizaziorik egon denik ere onartzen ez bada bati pat.

Zenbait kalte egin zela ere onartzen de-nean, ulert-erraz eta justifikagarri da. Bertako ohiturak ez zituzten behar bezala errespetatu edo alderdi txarren artetik onak berezten ez zuten ja-kin.



Eman dezagun baita ere bertako ekonomiari egin-dako kalteak egiazkoak direla eta egun ere herri hauetako ekonomiak garai hartako odol hustuak su-fritzen dituela. Honi ere

erantzuna emanen daukute. Alegia, herri aberatsek sobera dituzten ondasunetarik, herri behartsuek bere ekonomiko egoeraren larria salba dezaten, laguntza luzatuko diete. Dirutza hauk urtez-urte gehituz dohaz. Honela da herri aberatsen eta herri pobreen arteko ezberdintasuna leundu eta laburtuko. Hitz, batez, kolonizazioak sortutako gaitzak oro, urte batzuen buruan arrastorik utzi gabe, senda ahal izanen dira.

Kolonizazioa BARRENDIK bizi izan dutenen ikuspegia oso ezberdina da:

Bertaratu zen jendearen asmoak nolana hi-koak zirela ere ekintzek dute jokabidea azaltzen. Ez da kultura gosea, interes materialen eragina baizik nabaritzen. Kolonizazioaren pausoak bata bestearen ondorio dira eta hasitako prozesoa buru-tu artean logikoki emanen dira.

1.- Lehen pauso bezala herri baten lurral-deen nagusitzea eman ohi da. Nagusiogoa segur de-la, iraun-eraziko dion gobernua ezarriko da. Puesto

klabeak eskuetan direla egiazko esplotazioa has daiteke. Hango ondasun guztiez jabetu eta berak komertzialki esplotatu ahal izateko bere jaioterria igorri zituzten. Hau egitea zail zitzaien neurrian, kolonietan egoki zitzaien klase-banaketak sortu zuten. Bertan burjesia finkatu eta esplota-bide bezala erabili. burjesia honek egokieratik ikus dezanean, herria kanpotarren aurka altxa dadin prestatuko du. Gero burjesiak berak, bere egiazko muturra agertuz, bere alde atera den herri hau kupidagabe zanpatuko badu ere. Eta bere burua arriskutan ikus dezan bakoitzean kanpoko laguntza ren eske joko du.

Klase honen helburuez ez da dudarik egin behar. Agertzen dituen asmoak edozein direla ere, azkenik bere interesak galtzeko beldurrak eraginda mugitu dela bere ekintzan du frogatu.

2.- Kolonizazio ekonomiko honen ondoren, edo berarekin bateratsu, sendotu eta harrotu egingen duen kultural kolonizazioa etorriko da. Bigarren pauso hau, kanpotarren nagusigoa onartuko duen pentsaera sortzen eta zabaltzen saiatuko da. Norberaren mentalitatea erantzi eta nagusiarena jantzi eta ondorenez zanpaketa onartu aurrenik, buru-belarri aldeztu azkenik. Harrigarri badirudi ere, zanpaketa ren aldeztzaile hamorratuenak zanpatuen beren artean aukeratu ohi dituzte nagusiak.

Aurrerantzean, morroiak ez dio bere morrontzari gaitz-eritziko, ohartu ere ez baita egingen. Hain barne-muinetaraino sartua dugun zanpatu-pentsaera hau gainditzeko, kontzientziazio atzera-bidea ibili beharreko izanen zaiku. Besteen pentsaera hankaz gora bota eta gurea bir-idoro ez dezagun artean ez dezakegu esan gure egiazko nortasunaren bila egin nahi dugun bidea urratu dugunik.

3.-Ez zaizkio, noski, herri batek sufri di-
tuen gaitz guztiak kolonizazioari erantsi behar,
gainera gaitz hainitzek bere hasera garai artako
du eta ez da inola ere kanpotarrak uxatzeaz bat a-
maitu. Herri gehienak egun ere handikien atzapa-
rretan preso dira eta kolonizazio honek bere gore-
neko maila gure egunetan jotzen du. Aterabide ba-
karra, jende hainitzen iritziz, oso latza da. Etsi-
eta burua makurtu ala zanpaketa iraultzeko behar
diren medio guztiez baliatu. Hemen ere betiko le-
loa: klase baten interesik alde ez dezanak aurkako
klasearen interesen alde ateratzen da. Beraz, fal-
tsua da maiz aski gure artean bizirik dugun eske-
ma: barreneko-anaia; kanpoko-etsai.

4.-Gure kasuan zein diren herri nortasu-
na idorotzeko eta zein lirateken sasi-soluzioak i-
kasten dugu saiatu behar. Egundaino proposatzen
zaizkigun bideak norat eramanez gintuzken ikusteko
lana egin beharra dago. Reformismo bideak, egiazko
iraultza bideetatik berezten hasi beharra nabari-
tzen da. Reforma hutsez, egiazko askatasun-bidea u-
rratzen ahalegintzen den jendea, gure artean ere
ba dela esatea, ez da inorentzat harrigarri gerta-
tuko.

Zer egin behar dugu kasu honetan? Bide
guztiak onak direla esan, ez dugula gure artean ha-
serretu behar ~~er~~epikatu, eta beti ere erantzun go-
gor baten beldurrez, aurrera bideari kementsu eutsi
beharrean, atzera bidea hartu? Ez, bide guztiak ez
dira onak eta era askotara iraultza egin badaiteke
ere, gure kasuan iraultza egiten ari garen jakitea
da dena. Freire-k dionez, egiazko kontzientziazioa
ren agerpena bizitzan hartuko ditugun konpromiso-
ak emanen daukute. Eta honerat bultzatzen ez duen
kontzientziazioa ez da batere segurua.

Gure herriari nolabait erantzun nahi ba-
diogu, eta suposaturik herri kolonizatua jotzen du

gula, reformista soil den bidea, hau da, (bere eska kizunen beti ere sistimak eman ditza ken hobekun tzen mugaz berrendik jartzan badu) eta sistema i raultzerat eramane luken bideen artean aukeratu behar dugu. Ikastola kolonitzazaille eta askatzai learen arteko hautapena gogoz eginen ez badugu ere, gogoz kontra egin beharko dugu. Eskolak alderdi bati nahiz besteari eutsi behar dio. Kolonizazio hau gainditu nahi duanarentzat, ongi entenditzen saiatzea, lehen pausoa izanen da. Gure kolonizazi oa orokarra bada zein da maila ezberdinen arteko lotura eta askatasunerat eman behar diren pausoen logika



Nolanahi dela ere, galde ra hauei erantzun nahi i zatea egiazko kolonizazi oaren funtsera heltzeko saioa izanen dira. Hontaz hitzik ere egiten ez de nean ez da neutral jokatzan. Aspaldian oso hedatu rik den azalpena onartzen da. Ez inola ere azal pen neutrala, alderdi batek bere zanpaketa justifi katzeko emana baizik.

Gogora dezagun gainera, gure ikasleek, gu re historia gogo biziz jasoko badute, gaurkotasun giroan eman beharko diegula. Giro epeletan, proble metarik urrun ematen den heziketa, aldiz, ikasleen interes barrekekoetara eta **gazteriaren** nahikunde etara ez da hel ahal izanen.

Gaurkotasunari tokirik eman ez bagenezai o eta problemak uki ez baditzagu ere hor dira. Ez uki nahi izatea ere postura garbi bat hartzea da: gure funtsezko arazoetara ez heltzeko jokabide negargarria.

D/ HIZKUNTZA

KANPOTIK hizkuntzaren alde honela aterako zaizkigu:

Gurea bezain kutsu zaharrik duen hizkuntza galtzea oso penagarri litzake. Horregatik, hizkuntza ofizialaz gainera tokian tokikoa ere irakatsi eta aldeztu behar da. Hizkuntza kontserba dadin legearen babespean. Ofizial harremanetan erabiltzerik ez badago ere, etxean eta lagunen arteko entendibide bezala erabil daiteke. (ikus teoria honen kritika zorrotza, -huntaz eta hartaz- Larresorok egina). Euskara zergatik galduz dohan eta noiz galtzen hasi zen ez da esanzen, zenbait dato interesgarri agertuko lirakeen beldurrez edo.

Noizbehinka, galtzearen arrazoin bezala jendearen interesik eza emanen da. Egiaz hizkuntza berbizteko egin behar diren azterketak, eman behar diren pausoak ez dira jatortasunez emanen. Bide bakarra eskola jotzen da.

Hemen hizkuntzaren indarra eta esanahia ongien neutralizatzen delako, hizkuntza kultura abstraktoaren eremuan behin sartuz gero, Baina halere mesede bat eginen baleukute bezala hitz eginen daukute.

BARRENDIK ikus dezanak honoko hau ere pentsa dezake:

Hizkuntza eta herriaren egoera paretsu gain-behera dohazela, alegia.

Hizkuntza galdu duguneko beste gauza hainitz galdu dugu. Gure historiaren jabetza galdu dugu. Hitz egiteko eskubidea ere galdu dugu. Eta azkenik hitz egiteko eskubiderik ukan dezakegun, gure historiaren jabe izan gaitzezken, kontzientzia ere galdu egin dugu. Hitza kendu daukutelako, hiz-

kuntza ere kendu egin daukute. Hitz egiteko esku-
bidez egarri ez garelako, ez dugu gure hizkuntza-
ren balioa nabaritzen.

Gure kontzientzia ito ondoren, hizkuntza bere kutxu txar guztiez garbiturik, ordainez itzuliko daukute. Bai, ondasunak kendu, herri kontzientzia isil-erazi, hizkuntza desegin eta mintzatzeko esubidea kendu, denak dira bata besteari itsatsiak. Hitzarekuperatzen dugun heinean dugu herri-kontzientzia berbiztuko, eta hau eginaz bat, hizkuntzaren kiko egarria bere sakontasunera hel-eraziko. Beraz, hizkuntza oso maila ezberdinetan finka dezakegu. Barrenago hizkuntza bultzatuko eta barrenago herri-nortasuna dugu finkatuko. Hizkuntzaren itotzea kausatu duten alienazio guztiak, hizkuntza berbizteaz bat, dira eraso beharrik.

Aldiz, Hizkuntza herriaren egoeraz at era karri eta goraipatzen den bakoitzean, ez da hizkuntza eta beste alienazioen arteko loturarik ikusi eta gaintu nahi.

Honela, hizkuntza erabil dezanak herria hizkuntzaren zerbitzuan jartzeko arriskutan da, hizkuntza herriarenean jarri beharrean.

Hizkuntzaren egoera larriak herriaren egoera larria aditzera eman dezake, baina herriaren egoera larri delako da larri hizkuntzarena ere eta ez alderantziz. Hizkuntza kontzientzia esnatzeko bide da (ha bakarrik ez bada ere), eta kontzientzia zapalduak bere hizkuntza zapalduan du ongienik bere espresio bidea aurkitzen. Gure kontzientzia egiaz erna dadinean gure hizkuntza lantzera eramane gaitu.



Hizkuntza herri-nortasuna mamitzeko, pertsonen arteko askatasuna lortzeko tresna da eta bere heldutasunera herri askatasunarekin bakarrik etor daiteke. Hau gerta daiteke, hizkuntzak barrenean duen bizi indarrak eta askatasun goseak herriaren historian parte hartzerat bultzatzen gaituen heinean. Egungo zenbait euskal idazleetan bizitasun hau nabari da. Beste zenbait idazleetan, hizkuntza zaharraren edertasunerantz itzuli nahia sumatzen da.

Lehengo hizkuntzaren garbitasuna! Garai batetako euskeraren xamurtasuna eta xinpletasuna! Hizkuntza gauza zahartzat dadukatenen bizitza laburra izanen da, berek aldeztu nahi luketen hizkuntzaren indarrak berak atzera bait ditu utziko.

Eta nolana ere, hizkuntza berri ahal izanen du biziko eta burrukatuko den herriak, ez hiltzear dagoen herri zaharrak. Euskara batá nahiz bestea hautatu beharra dago: Euskara herri baten edergailu, bere aintzinasunaren oroigarri ala gure herriaren historia moldatzen lagunduko daukun euskara, bertan murgiltzera bortxatuko gaituen euskara. Lehen bidea hautatu dutenek, bere kritika kupidagabeez eta sasoi bateko ametsak gau eta egun eginez, bere egoera larria eta esperantzirik gabeko ikuspegia agertzen dute.

Eta zer esan euskara apolitikoaren fedea profesatzen dutenei buruz? Oso logikoak direla alde batetik. Baina zergatik hainbeste aldiz, euskara ez dela politika egiteko aitzakitzat errepikatu. Nor saiatzen da bizitzako zoko guztietara politiko kutsua barreiatzen?

Gutienez, hizkuntzaren alor tippi hau libre utziko ahal daukute? gu bederen garbi jokatu gara, eta azpi-asmorik gabe euskara soila irakatsiko dugu. Besteek, hizkuntza aitzekitzat erabili nahi duten horiek, eta askotxo ote diren beldur naiz, goizago edo beranduxeago, kutsu txar guztiek garbitu behar ditugu. Hizkuntza aitzekitzat nor dabil-

ki ordea?

Lehenik eta batipat hizkuntza herri kon-
testotik atera eta baratze berezi batetan jorratu
nahi duenak. Gizonen lana eta bizitza espresatze-
ko eta hobetzeko ez baina gauzak lehengo hartan i
raun erazteko.

Apolitikotasunen aitzekiaz egiten den po-
litika politikotasunaren aitzekian egiten dena
baino askoz ere maltzurrago izanen ez balitz beza
la!

Historia aztertzerakoan eritzi konformis-
tak zabaltzen dabilenak jokabide aski markatua
onhartzen du. Edozein konformistak, eritzi iraul-
tzaile batek bere eginkizuna betetzen du, nahiz eta
harrigarri gertatu ez.

Beraz,

ez da eskola politiko eta eskola apoliti-
koaren arteko aukerarik egin ahal. Esko-
la beti dugu politikoa. Agian politika-
rik beldurgarriena politikarik egin nahi ez duena
rena gertatu ohi da. Ba dago bai aukera, baina na-
hi eta ezkoa dena. Eskola molde liberala eta neut-
trala, bere helburuak markatzeko beldur den eskola
dugu alde batetik. Bere xedeez garbi mintzaten
saiatzen den eskola bestetik. Aukera agirian egi-
teko kemenik ukan ez dezagunean ere isilean egite-
ra behartuak gara. Kanpoko eta barreneko koloniza-
zioari amore eman ala ez eman, hizkuntza herriaren
zerbitzuan jarri ala herria hizkuntzarenean hauta-
tu egin behar dugu. Eta ondorioz, gizarte klasista
hau onartuko duen eta indartuko duen eskola ala
gizarte honen aurka burrukatuko den eskola, pres-
tatu.

Askok honi maltzurkeriaz, politizatze, men-
talizatze edo antzerako zerbait deituko dio, berak
egiten duen lana oso neutrala bailitzakean.

Ez da dudarik, egungo idazle batek dionez-
ikasle bati gai baten berri eman nahi zaionean, i-
kaslea eta gaia biak ezagutu behar dira, baina are
ago ere jakin behar da.

Zergatik eta nola gaia azaldu.

Zeintzuk diren heziketaren helburuak. Eta honi e-
maten zaion edozein dela ere bere politiko alder-
dia ukanen du.

L. Xabier




PROLETARIOEI DAGO KIEN PEDAGOGIA BERRIA

Zuei, langile eta nekazariari, sarritan, eskolaren alde joka dezazuen eskatzen dautzue. Baina zein eratako eskola den hori bai ahal dakizue?

Kontestu honi lotua dago eskola hori, zuen zantzaile den kontestu honi, alegia. Horregatik guk salatu egiten dugu eskola hau. Zuek eskola honen alde ateratzeko bai ahal duzue arrazoin egiazkorik?

Eskola hau berez kaltegarri gertatzen da, baina gizartea aldatu artean zer egin? Gazteria dagoenentan, beraz, kapitalisten atzamarretan utzi edo ta oraindik beretik zerbait egin?



Gu maisu talde bat gaituzue. Uste dugu gizarte sozialista baten oinarriak oraindik jar daitezkeela eta horretan saiatzen gara. Eskola kapitalist honen muinean, eta bere akatsak upidagabe salatzen ditugularik, eskola proletarioari hasera eman nahi genioke.

Argi esateko eskatu dautate: batetik guk kapitalist eskolari erasten dizkiogun akatsak. Bestetik nola eta zer heinetan gaurtik heziketa berri baten oinarriak finka daitezkeen.

Kapitalista zantzaile, eskolan, beste edozein giza ekintzatan baino maltzurragoa da. Honen froga latza zera da: langileriaaren alde, ekintza jatorretan aritzen zenbait langilek, alor honetan lan atzerakoi bat ohartzeke bederen egitea.

Eskoletan ematen zaizkigun ideiak, irakatsi ohi dauzkiguten liburuak eta hortarako beharrezko diren organizazioak, oso gizon jakintsuak pentsatuak eta eginak direnik, ez dugu ukatuko.

Hauek sortu dute kulturaren mirespen eta benera

zioa. Eskoletara datorren langile-seme gizagaixoa hainbateko jakinduriaren aurrean harri-eta zur geratzen da eta hainbat aberastasun bereganatzeko ez dela nehoiz gai pentsatu ere pentsatzen. Hauk dira egungo jainko berriak dio bere kolkorako eta intelektualak hau entzun eta pixka bat puztu ere egiten dira. Eta hauen guztien atzetik eta azpitik kapitalismoak, nola lehenengoan apaltasunari hala bigarren harrotasunari barre dagiolarik, bere burua segur ikusten du eta bere zanpaketa gogor dezakela badaki eta ez du denborarik xahutzen.

Ez bekizkigu pentsalari eta teorikoak haserre, baina ez gatzaizkie beren espekulazio eta ametsetan jarraituko. Lur tinkoan nahi ditugu gure ekintzak asentatu eta proletargoen heziketaren oinarriak zimendatzen saiatu.

Norbaitek eskolaz hitz egiten dautzuenean, berea la burura datorkizuena JAKINTZA da.

Eta hain zuzen ere, egungo eskola, jakintza emateko, kapitalismoak sortua dugu. Ez, ordea, giza jakintza bere zabalkunde osoan banatzeko, ez-eta zuek menperatu behar duzuen bizitza bere azken muinean eza gutzeko. Jakintza teknikoa da batipat eta ia soilik. Honek emanen baitio zuek ekonomikoki utilizatzea, zuengandik etekinik handiena eta trabarik tippienak izatea. Idiei lanean erakusten zaien antzeri edo-ta zaldiari, hain harro izanik ere, lepokoa jarri eta lan egin-erazten zaion bezalaxe.

Eskoletara, idazten, irakurtzen eta zenbatzen ikas dezazuen bidaltzen zaituete. Egungo industriak tankera honetako langileak behar dituelako, egungo merkatalgo kapitalistak idazten eta zenbatzen dakién morroiak, beren presupuestoak eta irakurtzeko gai daitezten nahi ditu. Gizarte-molde honek bere jarraipena seguratzeko, zuek egunero irakurtzen duzuen periodiko eta telebistan, oso itxaropen handia duelako.

Eskola ez dugu inondik ere filosofiko arrazoin batzuei erantzuteko sortua. Kapitalist gizarte honen teknikoak behar dituen bakoitzean, ematen dituen dirutzak, egiten dituen sakrifizioak, fenomeno honen froga agiria ditugu. Pertsona, hezi ordez, tekniko konzepto batzuek sasi-jantzi besterik ez du egiten.

Burua fantasmaz bete, errealitaterik ikus ez dezan.

Eskoletan itxaropen osoa izan dugun guztiok, egingo eskola honen aurka elkartu beharrean gara.

Egiazko azterketarik egin badezagu BI GAUZA hauk argi baino argiago agertuko zaizkigu.

1.- Eskola, bere HEZIKETA helburuetatik arras urrun dela.

Kapitalismoaren helburua gure buruak hezitzea izan balitz, bere buruaren aurka lanean ari zela, aspalditxoan ohartua litzake.

Egizue kontu eskoletan ibilitakoen artean eta zein hein tippian goreneko mailetara heltzen diren, garbi dakuskeue.

Eskolan egiten ari duten esfuerzo ikaragarri horretatik, zer geratzen zaie ikasle gehienei, galde balezaigute, gure erantzuna hau litzateke (bakoitzak berea eman beza):

Irakurtzeko, idazteko eta matematikazko problema erantzuna emateko, teknika arrunt bat, ez beste deusik. Agian batzuentzat aski izanen da? baina hala uste lezakeenak ere jakin beza, pertsona arrunt batek hilabete batzuen barruan irakurtzen eta idazten ikas dezakeela eta merkatari bat operazio batzuek errazki jabe daitekeela.

Hau egia da, behin eta berriz esperientziak fro-

gatura. Baina sistema honen intereseko denez, metodo aski luze eta aspergarri batzuen bidez ikasleen bu ruak nahasi egiten ditu. Hau zuek ere hainbeste ur tez eskoletako aulkietan hainbeste ordu aspergarri eman dituzuenok ongi dakizue. Gauzak arras konplikutzen dira, azkenik bakar batzuk aukeratu eta gaitzeko, beste gainerakoak, kapaz ez direlako, bazter tzen direla.



Guk ba dakigu eta hau frogatu eginen dautzuegu: ba direla alegia beste kide batzuk, heziketa askoz ere biziagoa eta sendoagoa emateko modukoak. Eta azaldu ere azalduko dautzuegu, zergatik ez diren, egun, bide hauk onartzen.

2.

2. ZERGATIK ESKOLA BIZITZEKO ARAZO MAMITSUETA TIK URRUNDUA DAGOEN AGERTUKO DAUTZUEGU.

Eskola elizaren antzeko da. Bertaratzen den jendeak, egiazko bizitzarekin zer-ikusirik ez duen zenbait praktika betetzen ditu. Nola batean hala bestean ere sartzeko isildu egin behar izaten da, xapela kendu eta abar... eta gero, egiaz ari denak aitortuko duenez noiz amaituko zain egon. Eta irten bezain laster berriro ere egiazko bizitzari aurpegi eman behar.

Nola egungo eliza, hala egungo eskola ere gizonon bizitzan, zer ikusi-handirik gabekoa da. Haurrak elizara lehen jaunartzea heldu deneino johan ohi dira; eskolara, behar den txartela eskuratu artean. Gero bizitzarat dohaz.

Hau egiazko heziketa denik esan ahal dezakegu? Era honetako eskolak gizonon bizitzan egiazko influentziarik ukan ahal lezake? Ez ahal luke bizitza

ren korapiloei lotua egon behar?

Zuen haurrei agindu batzu k erakusten zaizkie. Baina aginduak bizitzako arazoetan errotzen ez diren artean, horixe, agindu hutsak bilakatzen dira. Problema zailak erantzun ahal izateko prestatu eta egiazko bizitzaren situazio errazen aurrean motz geratzen dira. Sartzen zaizkie historia benetakobaten hondakin diren dato pilo bat baina egiazko politiko egoera bat entenditzeko, edo esplotazio guztiak salatzeo argitasunik ez zaie ematen. Buruz zenbait gauza jasotzea behartu bai baina informe bat idazteko edo jendearen aurrean hitz egiteko ez gintuzten prestatu.

ESKOLAK jende eskolatua bai baina egiazko gizonik ez du prestatzen.

Baina hau ez da kasu gertatzen. Ezen egiazko gizon zintzoak sortzea, kapitalista zanpaketaren aurka burrukatzea litzateke. Eta bere burua hondatzeoko lanik ez du inork egiten.

Zuei askatasunik eman nahi ez dautzuelako, aldiz, morroi isilak izan nahi dituelako, eskolak ez ditu zuen semeak eguneroko arazoetan murgiltzeko prestatzen. Kanpoko zaratatetik urrun, langileen burruketatik aparte. Hauk ikusiz gizon-emakume hauen begiak zabaldu egingen bailirake.

Zuek hainbeste estimatzen duzuen heziketa hau eman aitzakiz, zuen semeak des-hezi egiten dituzte. Disziplina gogor baten pean, sufritzen eta pasiboki jokatzeko ikasten dute. Eta pertsona ongi domatua izan denean bizitzarat bultzatzen da.

PESIMISMOA! esanen du zenbaitek. Baita ere errealitate garratza!

Esan dezagun, baita ere, gero eta gehiago direla eskola kapitalista honek erabat irentsi ezin izan

dituen pertsonak. Hauek luzaroan jasan dituzten eraso guztiei aurpegi eman eta egiazko heziketaren balioaz jabetzen dohazenak dira. Eskoletan ikasi behar zuten guztia orain nekez bereganatzen buru-belarri saiatzen direnak.

Eskolaren azken helburua, pertsonak bizitzako kontraesan eta korapiloetan hezitzea da. Zer balio du pertsonari irakurtzen eta kalkulatzeko irakastea, azkenik bizitzaren eragina ito egiten bada. Horretara ditugu hezi gure antzeko pertsonak, benetako gaitzak jota dira, bizitzak dakartzien gertakizunen esanahirik ez dute uler ahal.



Gazteak, dakizuenez, bizi-egarri, ekintza-gose mugitzen dira. Bide horretatik aurrera da posible nortasunaren aberastea. Eskolak ezer berezirik egiteke ere bizi-egarri honi eutsi balezaio, ekintza-gose hau in-

dar baleza, prestatuko duen jendea eguneroko gora beheretan parte hartzeko indartu egin du eta bide du eta bide onetik doha.

Hemendik pasatako ikasleek gauza harrigarriak egin ahal dituzte, bere ilusioak gogorki ebakitzen ez badira behintzat.

Egungo ikasleek ez dute eskolatan egiazko bizitza aho-gozatzerik, beren ilusioak mugatu egiten direlako noski. Eskoletatik lantegiara pasatuko dira eta haien ametsek egin dute berea. Etsi dute eta gazteagoek dituzten beroaldiak amets eta lilurak izanen dira, bizitzaren gogorak errendituko dituenak.

Kapitalist zanpaketak honela nahi izan ditu gazte hauk bere eraketaren jopu bihurtu eta baita erdietsi ere. Bere semeek aldiz, luzaroan agintaritzarako prestatu ondoren, gizarte honen zuzendaritza

hartzera eraman ditu.

Heziketa aldrebes honen kalteak ahalik eta tip-pien daitezen saiatzea guri dagokigu.

Zuek gurasook ere eskoletan eman ohi den jakintza hustel hau guttiesten ikas ezazue. Zuek bide hauetatik ibiliak zarete eta egun ere zuen haurrak egun osoan eskoletan eman ondoren neka-neka eginda etxeratzen zaizkizuenean, hau nabari dezakezue.

Guk espero dugu behintzat haur bizi eta kezkatu hauek sor daitezkeela zuei agertzea. Pasiboki jokatuko ez duten gizonak, luzaroan pilatzen johan zaizkien oztopo asko eta asko hausteko kemena izanen dutenak. Eragozpenak gaindituko dituzte eta gure laguntzarekin, bizitzaren jabe izanen dira.



-IKASLEEKI²NO EGOKITZEAK-

Kultura bat ikasleei - nolabait egokitzeak ba du irakaslearentzat zenbait buruhauste. Ikasleari jakintza baten informazioa eta bidea irakasterakoan, askotan oztopo hauekin - aurkitzen gara:

- ikasleek ez diotela - behar bezala Eskolako lanari erantzuten.
- ikasleen interesak eta irakaslearenak ez direla bateratzen,era bat diferenteak direla alegia.

Baina nondik sortzen dira traba hauk? Traba hauen i turria, dudarik gabe, egoki tasun falta bat da, eta - hauxe da hain zuzen ere i irakasle gehienek kezka. - Devvey-k egiten zuen galdera, hots, ea nola eman i kasgaiak biziki, aski inportantea dela iruditzen zait, problema honen erdi-erdian jotzen baitu.

Hemen bi alderdi aipa genitzake:

- 1.-Ikaslearen intere sak irakaslearenetarik a-rrunt diferenteak direla.
- 2.- Ikaslearen zen -

tzu -egitura eta irakas learena oso diferenteak direla.

- 1.- Ikaslearen intere - sak irakaslearenetarik arrunt diferenteak dira.

Interesak ikusterako an Claparède-k esan ohi zuena etortzen zait gogora: "asto bati urik e zin edanaraziko diogu e garri ez bada; horrela - interesik ez duen haurra ezinezkoa izanen zaiku lanera behartzea, aurrez lanaren beharra arrazoiz ikusi ez badu"

Baina interesak nola sor? Gaur egunean hone tarako erabiltzen diren medioak asko dira, baina bi talde haunditan be reiz ditzakegu:

- a) Gaiak kanpo dau den bideak: esate batera ko presentatu behar di- tuzten lanak, sariak lei aketarako sortzen duen gogoa, kursoa ateratzeko poza, Eskolan estimazio on batetara irixteko - grina.

b) Gaiaren inguruan eta bera motibatzeke dauden urratsen dinamika.

Bi medio hauen artean hoberena zein den experimentziak erakutsiko dauku. Bestalde bide hauek planteatu baino lehen beharrezkoa dugu ikaslearen ezagupide bat izatea, honek esanetan baitugu askotan zein medio den hoberena nahiz dugun interesa sortzeko. Ezagupide hau psikologia aldetik edo soziologia aldetik egin izan daiteke.

Haur bat ezin dugu zeharo sartu psikologiak egiten dituen klasifikazioetan, baina haur bakoitzaren estudio bat egiteko baliozko tresna izan dugu.

Soziologia ere gure lanerako erraminta baliosa izan daiteke, berak erakutsiko bait dauku ikaslearen ingurua eta bere harremanak nolakoak diren.

Interesari buruz azkenik Rousseau-k esaten zuena datorkit burura, hots, "metodoak baino inportantzia haundiagoa dutela motibatzioek; ikaslearengan interesak sortzen baditu-

gu, edozein bidez baliatuko dela ikasteko".

2.- Ikaslearen zentzu-egitura eta irakaslearena oso diferenteak dira.

Estrukturan pertsona ikuspegi orokor batetan ikus genezake. Jokabidea ikuspegi orokor batean ikusten dugu eta ikuspegi orokor horretan sortzen den dinamika sentimentuek osatzen dute, baina baita oharpekin, adimenak eta higi- indarrek ere. Elementu hauek denek hartzen dute parte dinamika hori sor dadin.

Piaget-ek adimena esperimentziak egokitzeke ahalmen bat dela dio, baina goazen egokitze horretaz zer entenditzen duen adieraztera. "Egokitze hau, gizonak bere inguruarekin duen harreman hoietan ekilibrio bat lortzea da", hots, bere jokabideetan ekilibrio hori iraunkorra izan dadin.

Ikasle baten adimen-egitura irakaslearen ganetik oso diferentea dela ez dago esan beharrik. Maisuak bere informazioa-ematerakoan egokitu egin beharko du, bere egitura tik ateratako bideak irakaslearen egituraren neurrikoak izan eta bihur daitezzen. Egitura alderdia oso zabala denez gero, irakasleari eskatuko zaio lehenik egokitze hau nola egin, etengabeko estudio bat nola eraman. Estudio honen ondoren atera ditzakegun ondorio batzuk hauk izan daitezke:

a) Hizkuntzari dagozkionak:

LEHENIK lexiko arazoa. Hau nola eman esanahi batekin eta gai berri batetan nola menpera aurrez hiztegi bat gaia menperatu baino lehen? Pestolazzik honela zion: "ikasleari beti bere barrutik irakatsi behar zitzaiola kanpoa; hots, berak ezagutzen zuenetik hasi behar zuela ezagutzen ez zuenera nolabait hel da din"

Hizkuntzari dagozkion arazoak askoz zabalagoak ere ba dira: hizkuntzaren azpi-estruktura ez menderatzea, hots, hizkuntzaz behar

bezala jabeturik ez gaudelako guk adierazi nahi duguna adierazteko kapaz ez izatea. Kasu honetan ez du hizkuntzak bere funtzioa betetzen.


b) Logika arazoa:

irakaslea bere logika bideari ezin zaio jarraitu ikaslearen logika bideak ahazturik. Erañtzun emankor batetara heldu nahi badugu laino arteko bidexketan barna ibili beharko dugu zerbait aurkitu arte. Logika bideetan sartzeko ikasle berekin eratutako lan-taldeek lagunduko daukute. Hemen azaltzen baitira hauen pentsa-moldeen a giriak. Talde hauk, beren gisa, metodo bat ezarri gabe egitea komeni izaten da, bide jakin bat ezartzen badiegu, talde-lanaz baino ezartzen diegun bideaz gehiago arduratzen baitira.

Egitura alderdi honek irakasleentzat irakaslea situazio global batetan ikustea eta aztertzea ekarriko digu; bestenaz, ez baitugu talde-lanean ari denean ez

eta ere, Eskolan, aurrean
dadukagunean ulertuko.
Eta egokitze lan bat egi-

teko beharrezkoa alder-
di hauk lantzea.




F.A.

IRAKURTZEN IRAKASTEKO METODU BAIEN BILA

Nere ustez irakaskintza lanean irakasle bakoitzak, behar du bidea bilatu eta aurkitu. Irakaskintza lanetan %90 irakaslearen asmakizun eta ideietan datza.

Berak bilatu, usaindu eta ikusi behar du momentu bakoitzean ikastola bakoitzeko haur bakoitzari dagokiona.

Jakin behar du ikastola hori zer herritan dagoen, herri hori nolakoa den, nolakoa den ere bere haurren gurasoen pentsamoldea, nola jokatu pentsamolde horrekin; ezagutu ere ikastolako haurrak, kontuan izan, ikusi bere inguruan bizi duen gizarteak zer neurri arte menperatzen duen, edo zer neurriko askatasuna eskaintzen dion; eta gauza guzti hauekin batera haur bakoitzak berez dakarren naturaleraz, izateko era berezia ezagutu.



programa hoik.

Irakaskintza laneko zirkulantziak beti aldatzen ari dira eta neretzat irakaskintzako programak aldakorrak izan behar dira, bigunak; biguntasun horren bidez haurren izateko erara moldatzen jakin dezagula

Irakurtzen nola irakatsi.

Gauza hauk denak kontuan izan da gero, Pasai San Pedroko Ikastolan irakurtzen ikasten hasiak ziren sei urteko haurrekin, aurrez aurre aurkitu nintzen. Beren lehen saiaketak "Martin Txilibitu rekin" eginak zituzten.

Hasi nintzen haur talde honen irakurtze ikaske-
tak norainokoak ziren ikusten; gehienak ezer guti
zekiten baina hiruk irakurtze ikasketa aski menpe-
ratua zutela konturatu nintzen.

Hala, hiru haur hauk hartu eta abesti bat ira-
kurtzea eskatu nien, irakurri ondoren abesti haren
esan nahia edo gutienez berak ulertu zutena eska-
tu nien eta ez zekien ez batak ez besteak iraku-
rri zutenaren berri eta hau behin eta berriro ger-
tatu zitzaidan hiru haur hauekin.

¿ Beraz, zer egin oraino irakurtzen ez zekiten
haurrekin?

¿ Martin Txilibitu edo bere antzeko metodou
a erabili?

Ez; zeren, zertarako balio du haurra asper-
tzea, nekatzea ondoren ezer ulertzen ez duen berri-
tsu batzuk besterik izango ba dira.

"Martin Txilibitu" edo bere antzeko metodoak ez
erabiltzeak oztopo izugarri bat dakar, eta da gu-
rasoek nahi hainbat arin irakurtzen ez dutela i-
kasten haurrek; orduan, haurra inguratzen duen gi-
zarteak haurrari inposatzen dio irakurtzen ikaste-
ko nahia, eta benetan izugarri txarra da haurraren
askatasuna baldintzen dutelako.

Lehen irudiak, lehen hitzak.

¿ Zer egin, beraz, haurrei ira-
kurtzen irakasteko?

Eta hala nenbillela, "lehen
irudiak, lehen hitzak" irakur-
tzeko metodoarekin topo egin

nuen, interesantea iruditu zitzaidan eta berau erabiltzen hasi nintzen sei urteko haur talde honekin.

Irakurtzeko metodo honekin hasi baino lehen beste lan batzuetan haurrak sartu nituen; askatasun giro bat sortu zedin, eta hau plastilina, hainbat eratako domino jolasak, egurrak, eta argi lanaren bitartez. Ondoren lan zaharrak utzi gabe lan berri bat edo beste sartu eta gero, "lehen irudiak, lehen hitzak" metodoarekin hasi nintzen.

Metodua erabiltzeko ez nituen zuzendaritza edo erregela-araurik izan. Lehenengo liburua, pertsonak, hartu eta euskeratu nuen. Diapositibak ikusteko 250 pezeta balio duen aparato txiki bat erositu nuen.



Kartoi bat zintzilik haurren bistan ipintzen dut, diapositibak berek beren mahaietan dituzte, gauzak hala direla eta lehenengo hitza hartzen dut, "gorputza", eta gorputzaren irudia erakusten diet eta bakoitzak bere "gorputza" ukitzen du, ondoren hitza harbelean idazten dut eta berak kua dernoan kopiatzen dute, gero eskatzen diet zerbait esateko eta norbaitek hau dio "Joakinen gorputza luzea da" eta hau harbelean idatzi eta gero berek beren kuadernoan.

Noiz edo noiz idazti lanak uzten ditugu, eginda koa irakurtzeko.

Beti saiatzeko gara hitz batzuen arabera fraseak egiten, hau da, haurrak asmatu eta esan dezazken hitzak erabiltzen.

Lehen, beti nik idazten nuen harbelean, baina, orain, nola hainbat hitz berentzat ezagunak diren,

berak etortzen dira harbelean idaztera; batek hitz bat osoa idazten *er* ba daki besteek osatzen laguntzen die, adibidez "luzea" hitza batek "lu" ipintzen du eta ez daki "z" idazten, orduan hizki hori beste batek ipintzen du edo nola ipini behar den esaten dio eta hala idazten dute "luzea" hitza den artean.

Metodu honetan berak beren kuadernoaren bidez irakurtzeko liburuxka idazten joaten dira, beraz, guretzat kuadernoak garrantzia handia du.

Oraindik metodu honen barruan erabili ez duten posibilitate bat, domino egitea da, kartoiak ebaki, gero, dominoren antzera esaerak egiten joan ditezten, irudiak begien aurrean dituztelarik.

Haurrak, eta hau nik ikusten dut, irakurtzen ikasten ari *di* dira askatasun giro batean eta "Martin Txilibituarekin" bezain azkar ikasiko ez ba dute ere, bai kontzientzia gehiagorekin.



Metodua erabiltzen noan araberan posibilitate gehiago eskaintzen dizkit, nere eginkizuna posibilitate hau, k aurkitzea da.

* * *

Zergatik ez, Zergatik bai.

"Lehen irudiak, lehen hitzak" metodu batzuekin konparatzen ba dugu, ba da aurrerapen bat, baina begiratzen ba dut neretzat irakurtze irakaskintza nolakoa izan behar luken, pauso bat baizik ez da metodu hau.


Denok dakigu idaztea mekanismo bat dela baina metodu honek mekanismo hau haurrari goitik bera ematen dio.

Ez dio haurrari mekanismo horretaz piskaka bere modura jabetzen uzten; hau da, mekanismo horren lana metodu honetan ez doa betik gora, goitik behera bai zik.

Dena dela, hobeago da ideala era-bat erabiltzen ez dugun bitartean, idealaren ahalik eta hurbilena ibiltzea gero ideala errazagoa izango bai da.

Eta "lehen irudiak, lehen hitzak" pauso bat beza la erabiltzen ba dugu pauso ona izango dugu.

AMAYA LASA



30

ERLIJI-AZ BERRIRO

Talde honek bere lan eta gora-beheren berri ematea du helburu artikulotxo honen bitartez. Emango ahal dugu labur eta zehazki, baina baita kezenez ere, arazo honek ukan bait lezake zenbait ondorio ikastolen geroan.

1.-Materiala biltzea.- Hona, igazko kursoan zehar ikusten genuen arazoa eta hori konpondu nahirik ibili ginen zer-nolabait, deus argitara eman ez bagenu ere.

Inola ere pedagogiaren beste gai edo puntuetan bezala (irakurketa-idazketa, matematika, geografia, etab.), erlijio gaiari buruz ere aldatu, berri eta nola ahalik sakonen jo behar zen ikastea genuen premiarik handiena. Dato bat genuen bereziki gogoan: gazteria, kasik urrundurik dela Elizatik. Eta beraz, gure haurrek, gazteen gandik hurbilago direnez, helduen belanaldiari ez-baina, gazteei errazago jarraituko diotela, noski, eta hauen errealitatean finkaturik behar genuela ahaleginean fedearen espresio berri bila jo.

Honek, gaur egungo kontestoaren arakatzera eraman gintuzen: munduaren eta euskal-herriaren aldakuntza; erlijioa eta fedea; marxismoa eta Kristo; sekulartasuna eta ateismoa; heziketa eta Jainkoa, eta beste zenbait puntu.

Bestalde, arazo hauk ikasi eta jatorki aurrerat bidea markatu bitartean, ezin zen eten ikastoletan erlijio-irakaskintza, behar zen jarraitu ahal zen heinean behinik behin. Beraz, bazterretan

zen materiala bildu, berau ordenatu, euskaraz taxutu eta ikastolei zerbitzu eskainiaz genuen eskuarteke lana. Hauxe zen erlijio gaiean erabakitza hartu ere 70 udako ikastaldietan Loiolan, eta horren arabera ihardun zuen ikastaro osoan zehar erlijio lan sail honek: estudio lanean eta materiala biltzen, alegia.

2.-Egoera berria.- Hontan ari ginelarik, behin baino gehiagotan aldizkarian aipatu dugun "giro xelebrea" sortua zen eta aski garbiki ikusteko moduan zen nabari nonahi. Jadanik, zenbait elizgizon, erlijioa zela-eta, susmoz beterik zen ikastolei buruz. Guztiok buruan ditugu, han-hemenka, hila bete horietan zehar gertaturiko hainbat kasu garraz, harik-eta johan zen udan Iruñeako irakasle-ikastaldi famatuaren kasuan goia jo zuen arte.

Bistan zen, egoera baten aurrez-aurre aurkitzen zirela ikastolak, eta ondorioz, iragan zen kursoko gure lana edo lanaren planteamendua arras gaiturik zela, beste gabe ere.

Egoera berriak, planteamendua ere berria eskatzen zeukun. Han eta hemen, gorde-gordeka bezala egin ziren kursiloetan, berriro planteatu behar izan genuen "heziketa eta erlijioaren arazoa". Bideak garbitu eta behingoan zeharo berriak urratzen hasi beharra azaldu zen.

Hauxe, bada, zen planteamendu berriaren eginkizuna: ikastolek puntu honetan zer eginkizun zuten mugatu eta gupida gabe jo handik aurrerat, bakoitzak bere axolakabekeria ezkuta orde zintzotasunez lanari atxikitzeko.

3.- Har-emanak.-

a.- Hala-nola, federazioko erlijio-ordezkariek (Olano eta Otamendi jaunak) eskatu zeuku -

ten lehenik elkarrizketa. Gu, bereengana bildu nahirik zebiltzan iritzia genuen aurretik, eta uste berarekin gelditu ginen haiekin egin genuen bilkura ondotik ere.

b.- Udazken aldera, egun batez, Goi-herri bailarako apaizek hiru ordezkari hautatu zituzte lako berria heldu zitzaikun: eskoletako erlijioaz arduratzeko ordezkari, alegia. Geurok eskatu genuen hauei elkarrizketa. Hirutarik bakarra azaldu zen (Ormazabal Xabier apaiza) gure bilkuran.

Haurraren heziketan Jainkoa onartzen genuen alaez, soilki jakitearren, etorria zen susmoarekin - gelditu ginen. Argitasun handirik ateratzeke amaitu zen bilkura hura. Bakar-bakarrik Erljio-pedagogiaren eremua hirutan zatikatzen zela (familia, ikastola, parrokia) entzun eta errepikatu - genuen behin eta berriro. Guk, zer ote zen bereziki ikastolarena jakin nahi, baina bai zera! entzungor egin zeukun ala.....berak ere ez zuen - hain zehazki ikusten.

d.- Geroz, Garitano apaizarekin ukan genuen har-emana. Berak zuen azaldu gurekin egun batez egon nahia eta horrelaxe elkartu ginen. Honek, aski garbi ikusten zuela gure arazo berezia iduritu zitzaikun. Elkarrizketa-giro onean eramzen bilkura, eta ados ginen berezi-bereziki (ez dugu soilki, bereziki baizik, esaten) zertan ditzan ikastolaren erlijio-heziketaren funtsa: giza-baloreak edo, esan dezagun, ispiritu-baloreak lantzen, alegia.

Halatan, hau teorian gauza bat zela, eta - halere praktikan gure egoera (irakasle, apaiz, guraso) besterik zela ikusirik ere, luzarora begira berderen, bideak oraindik urratzen hasi beharra zegoela irizten genion denok. Hurrengo bilkura aipatu zen, eta ordurako bakoitzak bere aldetik gai hau ikasirik ekarri beharko zuen; eta gu, batipat goiherriko herri bakoitzean horretarako zer posibilitate ziren egoeraren berri ekartzeko konpromisoare-

kin itzuli ginen.

e.- Eguberri aurreko astean bildu ginen ostera. Orduan, Arregi Eujenio apaiza eta biak etorri ziren. Onartua izan zen hau gure artean, ez harelere federazioko ordezkari bezala. Hastetik, garbiki ezartzea nahi ukan genuen puntu hau eta berak, aski gizonki, xehetasun oro emanaz, erantzun ere erantzun zuen. Entzutera etorria zen, eta horixe egin zuen, entzun.

Sarrerako hitzen ondotik, Garitanok ekin zion gaiari. Idatzirik ekarri zuen lana eta berehala hasi zen berea irakurtzen, baina ez aurreko bilkuran hitzarturiko puntua: oi, gauza harrigarri-beste bat baizik. Onez-onean baina laster adierazi zitzaion ez ginela horretan gelditu azkeneko aldiz elkarrekin bildu ginelarik. Desenkusatu ondoran, luza gabe ginen arrastoan sartu.

Alabaina, elkarrizketa baino eztabaida gehiago izan zen gure iharduna, eta eztabaida luzea, eta beroa, memento batzuetan. Arras aldatua ikusi genuen buruz. Iduri zuen ez zela aurreko bilkurakoa bera, eta gaur egungo (edo lehengo) Eliz-muntaduraren defenditzera etorria zela esan zitekean.

Ez dakit behar bezala laburtuko dudan: kristau-heziketa aipatzen zuen, eta berak erlijioaren pedagogia nola egiten duen irakasle dagoen ikastetxean; guk, berriz, ikastola orok dituen puntu-komunak, eta heziketaren eta fedearen oinarriak aipatzen edo eskatzen genizkion; bera gizon ikasia eta gai horietan trebatua bezala agertzen zen; ez jakin bezala gu baina kaskarreko onak harturiko jendetzat; kristau-ikastolen alde zegoen bera, kristiandadeko Elizan bezala teoria hori xuritu nahirik; guk fededunak ikusi nahi genituen ikastolan nahiz gizarteko beste edozein erakundetan etiketa eta bedeinkazio oro bazterreraturik, fededunak herriaren nahiz pertsonaren nortasuna lantzen edo gehitzen ahalegintzen direlarik; humanismoaren arrisku gorria salatzen zuen harek gure bidetik; er

lijiokeriazko (ez arriskua soilki) egin den ere bekatu beltza, berriz, guk haren jokabidetik.

Esan beharrik, zer-nolako sokatira erabili genuen, beti ere bakoitzak bere alderat tira eginaz

Dena dela, denok ere barneko haserrea ezin disimulaturik eta halakoxe irribarre artifiziala elkarri eskuarekin batera eskainiaz, amaitu zen gure iharduna, inola ere egun bateko edo biko elkarriketan hauzia ebaki ez zitekeelakoan.

Erljio-taldekoak.



35

EUSKARA EIBOHO ZENBAI IKASTETXETAN

Egundaino iraun badu ere, denok dakigu Euskara nekez biziko dela, eta aintzinerat begira etorkizun latza duela, baldin ikasbideetan sartzen ez badugu. Hontan, ikastolak bultzapen handia egin diot. Baina, zoritxarrez, euskaldun ikasle asko dabil ikastolatik at. Eta hauk ere eskolatu beharrean gara, biharko Euskal Herriak Euskara goimailatan ere erabil dezan nahi badugu.

Eta egun behar hori inoiz baino larriagoa deritzaugu, zeren erdarazko bizitza etxezoko eta lagunartetaraino sartu baita, telebista, irrati eta aldizkarien bidez hainbat euskaraz ez dakiten etxebide eta lagunen bidez.

Bestalde, gure herrian kanpotar asko dugu euskaraz ikasi nahi duena edo bere umeei, bederen, ikas dezaten nahi duena.

Guzti hauk ezin hartu, ordea, ikastoletan, ez-eta gauikastoletan ere. Hontaz, pentsatu genuen ikastetxetan nolabait sartzea. Aurrena, irakasleak aurkitu behar ziren. Irakasleak bildurik, 1970 urteko ikastaroan hasi ginen, ikastolako irakasle zenbait eta apaiz bat, San Andres deritzan eskola nazionallean, astean bitan asteazkenetan eta larunbatetan ordu beteko ikasaioa ematen, haurrak taldeka hartuz zekiten euskararen mailaz (zekitenak, ulertzen zutenak eta deus ez zekitenak) eta adinez antolatuz. Besterik ezean, Patxi Altunaren metodoa hartu genuen.

Zoritxarrez, ez genuen talde asko egiteko haukerarik ukan, ez baizen tokirik aski. Irakasle bakoitza haur gehiegi kin gertatu zen; nekaturik ego

ten ziren eta lanaren erdia ere ezin egin zen. Me-
todoa bera haurrentzat astuntxoa zen, gure ustez.

Asko aurreratu ez arren, lan interesgarria idu-
ritu zitzaigun eta ikastaroa amaitzean, eskola har-
tan ezezik, beste zenbaitetan ere eman behar zela
pentsatu genuen.

Ez ginen gu bakarrik, Eibarko Udaletxeko Bazku-
n batek gerizatzen ginuzen: Euskeralagunak, euskara
zabaltzeko eta sendotzeko sortua den Bazkunak.

Jo genuen, Bazkun honen izenean, Eibarko ikaste
txe orotara, ikasleen artean galdekizun bat zabal-
eta egin zezatela eskatuz, eta hurrengo ikastaroan
euskara-ikasaio batzuk antola zitzatela proposatuz.
Ongi hartu ginuzen ikastetxe denetan. Eta galdeki-
zuna, erdaraz, ikasleen artean zabaldu zen. Hona he-
men galdekizunaren puntuak:

- euskara ulertzen duen
- ez dakien.
- euskara irakurtzen duen
- euskaraz idazten duen
- euskaraz ez irakurri ez idatzi egiten duen
- aita euskaraz mintzatzen den
- ama euskaraz mintzatzen den
- etxean norbait euskaraz mintzatzen den
- etxean euskara egiten duten
- euskara ikasaiorik nahi duen:
 - eskola ordutan
 - eskola ordutatik at.
- galdegin gurasoei euskaraz ikas dezazun nahi
duten ala ez.

Galdekizun honi, batezere azken galderari, baietz erantzun zion %80-ek. Erantzun honekin, ikastetxe bakoitzean nola hasi eratzeari ekin genion.

Batzuekin eta besteekin mintzaturaz geroz, A.P.E. (Asociación Propulsora de Enseñanza) Bazkunak dituen ikastetxe bitan hasi ginen ematen. Bi haue-tan, 11 talde dugu, euskara mailaz eta adinez antolat^u turik eta asteko bina klase ematen dugularik. 11 irakasle gara eta beste bat 'ordezko', norbaitek huts egiten duenean honen ordeaz joan dadin. Ikasleak, euskara ikasaio honengatik ez du deus berezirik ordaintzen, A.P.E-k ordaintzen dauku, orduko, beste edozein irakasleri bezala. Ikastetxe bi hautan 600 ikasleak ikasten du euskara nahiz euskaraz.

Hontaz gainera, San Andres Nazional eskolan ere igaz bezala bost talde dugu; hemen ikasleak 50 pezta ordaintzen du hilean, astean ordu beteko bi klaserengatik. 200 bat ikasle dugu.



Serora edo monja-eskola bitan ere hasiak dira euskara ematen: Aldatzeko ikastetxean eta Merzedarienean. Hauetan bertako serora zenbaitek eta irakasleek ematen du.

Eragozpenak izan dira, noski. Ez, ordea, gehiengot^u tan, zuzendari eta eratzailleentatik. Hiru motako eragozpenak ukan ditugu; bata, ikasaioa hoiengor^u dua. Zeren ikasketak Estaduak eratzen baititu eta honek euskara emateko ordurik gogoan hartzen ez duenez, euskara ezordutan sartu beharra ukan dugu batzutan, ikaslea aski nekaturik dagoenean.

Bestea, irakasleak biltzea. Ez da aise aurkitzen egunero arratsalde erdian edo goiz erdian ikasaio bat emango duen euskaldun ikasiarik, apur bat bederen ikasia behar baitu izan euskara irakatsiko

duena.


Hirugarrenez, metodoa. Euskaraz ez daki naren -
tzat ba da zenbait metodo: "Euskera hire laguna",
"Euskera irrati bidez"... Egokiagoa da, ordea, nagus
sientzat haurrentzat baino. Guk aurten, ez dakite-
nentzat, "Euskera hire laguna" hartu dugu nagusiei
irakasteko; hurrei irakasteko, berriz, gutako bat a
ri da metodo bat sortzen -Altunaren liburuan oin-
harriturik-; dibujoen bidez ihardun erazten duena.

Ez da erraza aurrerapenak lehenengo eta behin
ikustea, oso poliki joan behar izaten baita eta i-
kasaio batetik urrengora tarte luzea baita. Baina
aski pozik goaz bide hautatik.

Dakitenentzat, edo ulertzen dutenentzat, "Ikas-
teko" eta "Jostatuz mintzaira ikas", "Lehen urra-
tsak" eta bakoitzak sortzen dituen gaiak erabil-
tzen ditugu.

Fruitu handirik atera ez badugu ere, batekoz bes-
te, 1.000 ikasle inguru euskara bideetan sartzeari
lan interesgarria deritzagu. Eta ez dakitenentzat
ezezik, dakitenentzat batik bat da onuragarri, ze-
ren-eta hauetan etortzen baita fruiturik handiena.


Jesus Maria Arrieta



Herriz-Herri

Gaurkoan herri eta bailara mailan zuekin ukan ditugun harremanen berri eman nahi dautzuegu. Ingurua oso zabala izanik, gure lana ezin nahi bezain ongi eraman. Alegia, alde batzuetan bestetan baino gehiago ibili gara, eta lana ere maila ezberdinean egin dugu. Ez goaz guzti hau gure lanaren justifikazio bezala azaltzera, baizik egin ez denaren arrazoinak ematera. Dena den, zuen alde tik zenbait eritzi eta eskakizun jasotzea behar rrezkoa dela esan nahi dautzuegu, jakina, aurrera bideak hobeagotzen lagunduko daukutenak behar dute izan.

1º- Gaurdaino egin diren lanak aipatzean, lehen esan bezala, alde guztietan ez dira neurri berdinetan eginak. Honela, Elgoibar, Arrasate eta Urola bailaran errege kanpaina landu gaberik gelditu da. Tolosa, Ipar-aldea, Goi-Herri eta Donostian bailara mailan azaldu da eta bakoitzak interesgarri ikusiz gero gurasoekiko lanerako laguntza eskaini zai o eta nahi zuten ikastola bakoitzeko irakasleekin prestatu ahal izan dugu. Errenderia eta Pasaia bailaran ikastolaz ikastola prestatu eta landu da. Hiru hilabete hauetan guttien azaldu garen bailarak Tolosa, Irun, Goi-Herri eta Urola izan dira.



2º- Gure artean elkartzan garen aldioro, irakaskintzaren gakorik handiena irakaslearen esku dagoela esan ohi dugu, alegia, irakasleak behar duela jabetu irakaskintzak berekin daraman erroaz eta honen nora-bidea taxutzen saiatu.

Ikastolan sortzen diren beharrei erantzuteko bailara mailan egiten da eta zenbait lan, baina aurten bailaraz baino herriz edo ikastola bakoitzarekin hasi nahiago genuen.

Ikastola bakoitzeko errealitatea izan behar bait du bailara lanaren oinarria. Bailara mailan egin diren lanak bakoitzaren beharrei ez diela erantzuten ikusten zen. Bailara lana beste lanetatik gelditutako denbora librean hartuko zuen, berdin zitzaien egun batean joan eta bestean ez, ez zen inongo konpromisorik hartzen, informazioa biltzen ere ez zen saiatzen. Guzti honek, gertakizun gogorra azaltzen dauku. Beraz, hona herri bakoitzean ukan ditugun harremanak nola taxutuak izan diren: Elkar ezagutze; aldizkariaren berri eman eta kolaborazioa eskatu; ateratzen ari den materialaren zabaltzea; errege kanpaina; irakurketari buruz Martak ikastaldia; ikastola programaren prestaketa eta batez ere herri bakoitzeko gertakizunari erantzuteko moduan lana eratzea.


Ikusi dugunez gure lanean benetasun falta handi bat nabaritzen da. Bakoitzaren eginkizuna bere gelako lantxoan egin eta bukatzen denean, bailara lanak ez du inongo sentidurik, berak ez du zer ikasirik, ez-eta zer emanik ere.

Elkartzea ongi ikusten dutenen artean ere badirudi beren arteko elkartasuna itxura hutsean gelditzen dela. Taldea osatzen duen bakoitza beste batek edo batzuek maneiatzen dutela alegia.

3º- Irakaskintzak duen garrantzia ikusiz gero, talde lana guztiz beharrezko gertatzen da; - baina, irakasle guztiak lanez beterik gabiltzalako bete ezinekoa ikusten da. Honekin ez dut esan nahi egiten dena egin behar litzakena baino lehena gokia denik edo ez denik, baizik bata bestearen eragozpen dela.

Ikusi besterik ez da, eguneroko lan orduak bukatuak, badi irakasleak zer-eginik asko: klase partikularrak eman, frantsesa, euskara (nahiz ikasten ez arduratu, batere ez dakitenei edo oso gutti dakitenei emateko...) beste asko berriz ikasketak egiten ari dira, batxillera, filosofia etab.

Egunero hau rrekin egin behar den lanez gain hainbeste konpromiso izanik, ez du bailara lanak aurrera egiterik izanen; ez dugu irakaskintzak duen inportantzia jabetzerik izanen, beraz arazo handienak ere tapatuak izanen dira.



Honela, ezin euskara ikasten denborarik galdu, ezin segurantzia gabeko gauzetan jirabiraka ibili.

4º- Talde lanean arazo handi bezala ikusten dugu, taldea osatzen dutenen artean maila ez berdinetako jendea egotea. Batzuek ikastola praktikarik gabeak, euskara doi-doian dakitenak; batzuek berriz lizentzia dutenak, eta primariako ikaske ta soilak egindako jendez osatzen dira gure taldeak. Hau dela-eta lana egokitasunez zuzentzen ez delako edo taldean zenbait diferentzia sortzen dira eta hasitako lanaren eragozpen bihurtu.

Orain arte aipaturikoak eguneroko arazoak dira.

Erantzuna nork, noiz eta non?

ERREGE KANPAINA

Izen honekin azaldu den lana guraso arte an egiteko prestatua izan da. Honetarako irakasle artean egin ditugun bilera ondoan, gurasoekin oso lan gutti egiten dela ikusten dugu, eta jakina, lan hau urtean zehar gurasoekin egiten ari denaren jarraipenezko lana izan behar du.

Ezin benetako heziketa lanik egin gurasoekin baturik ari ez bagara, behar dute jakin gurasoek gure lan eta lan-eraren berri; jakin, eta berek parte hartu ere bai. Guk berriz, ongi ezagutu behar dugu haurraren ingurua zer-nolakoa den, hone la haur bakoitzaren izatea kontuan har dezagun eta bakoitzari erantzuteko moduan presta gaitezten.

Urte osoan zehar gurasoekin lanik ez bada egiten ere, nolabait hastea zen gure asmoa eta irakasle bakoitzak bere gelako haurren gurasoekin bildu dadin aritu gara.

Lan hau azaltzean kanpotikako zenbait iritzi edo esames entzun ditugu; hara batzuek zer dioten: "JAIOTZARI" eta "ERREGE EGUNARI" boikot egin nahirik aitzaki asko asmatuz, ari dira esaten "JAIOTZAREN" ordez "OLENTZARO" atera behar dela, horrela pagano giroa edo zaldizko ibilaldi hoiei kristau kutsua kentzearen...."

ERREGE EGUNAREN aurka ere hasiak dira. Egun horren sarreran egin ohi den kabalgata edo zaldizko ibilaldia kendu nahirik dabiltz. Kristau kutsua bait du... eta egun horretako jostailu banatzea ere ez dute nahi eta horretarako aitzaki polita asmatu-ere bai: alegia, egun horretan jasotako jostailuak, ikastola-ko oporraldietako bezperan hartzen dituztela, eta jostatzeko astirik gabe gelditzen direla..., berehala berriro ikastola-ra joan behar bait dute... Langintza horretan dabiltzanei, guti axola umeen jostailu eta gorabeherak.....


Aitzakó horrekin, ordea, egun horri kris -
tau kutsua kentzea besterik ez dute nahi, argi eta
garbi dagoen-bezala. (Abenduaren 22-ko Diario Vas-
co-tik hartua)

Ikusten denez, honek ez du kanpainaren u-
sainik ere hartu, bestenaz ez litzake arrazoin e-
pel hauekin harat-honat ibiliko.

Oharra. -

Herri eta ikastola bakoitzean Errege kanpainaz e-
gin den lanaren berri azaltzen joatea on izanen
litzake, honetarako esperientzia hau bizi izan du-
zutenak aldizkarirako idatz, dezatela eskatzen
dautzuegu. Egin ez duenak, berriz, beste arrazoinen
bat izanen zuen noski, ez litzake gaizki bere berri
jakitea ere.

arantza



DIRU KONTUAK

Urte bukaera dela-eta, urte barruan ekonomia alderdian izan ditugun sartu-atera eta oraingo egoeraren berri ematea egoki eta bidezko ikusten genuen. Gainera, batzuen eskabidea denez, gogo gehiagoz egiten dugu.

Gipuzkoan 300 irakasle inguru gara. Aurtan 186 ordaindu dute.

Hona bailara bakoitzak organizazioari buruz hartu tako konpromisoari nola erantzuten dion:

Irun bailara.....	guztiek	ordaintzen	dute.
Ifar-aldea... ..	"	"	"
Errenderia bailara.. ..	"	"	"
Pasaia bailara	5 herritatik	4-k	ordaintzen du.
Goi-herri "	12	"	11-k "
Arrasate "	7	"	6-k "

Hona atzeraka dabiltzan bailarak:

Donostia (nahiz ikastola batzuk oso leial ordaindu)	18 herritatik	12-k	ordaintzen du.
Tolosa bailaran	8 herritatik	3-k	ordaintzen du.
Urola "	8	"	3-k "
Elgoibar "	4	"	1 hasi da ordaintzen.

Oharra. - Ordaintzen ari den jende guztia ez da garai berdinean hasia, beraz, kontuak emate-rakoan hainbeste zehaztu gabe ari gara, alegia, jeneralean edo guztira egin diren sartu-ateren berri emanen dautzuegu..

URTE OSOAN EGIN DIREN GASTUAK

Gordailuko etxe-errenta...	78.000,-
Telefona...	19.813,-
Gasa eta argia...	3.197,-
Liberatu baten urte osoko saria...	82.000,-
" " " " seguroa...	6.000,-
" " lau hilabeteko saria...	30.000,-
" " " " segurua...	2.000,-
Material, bidaiak eta gainatzeko zen- bait gastu...	30.794,-
	<hr/>
Guztira	251.804,-

HARTUTAKO DIRUA

Irakasleek emana ...	200.000,-
Alfabetatze batzordeak...	9.000,-
Nekane Iturberen izenean zegoan:	
-seguroko dirua ...	36.277,71
-Goibe-ko interesak...	18.225,16
	<hr/>
Guztira...	263.502,87

Dakigunez, edozein eratako organizaziok e-konomi arazoa ongi eraturik ez badu, ez du iraupenik. Asmo handi eta egokiak izanik ere, diru gabarik bidean langa eta trabak besterik ez ditugu izanen. Ene eritziz ongi ordaindu dute herri hauek, esandakoaren garrantziaz konturaturik direla esanen nuke, hartutako erabakiak hala betetzen bait dituzte bete ere.

Ordaintzerakoan motel dabiltzanak honela justifikatzen dira:

- 1.-Arazo hau agertu denean, baietz esan arren, gure artean ez da ordaintzen.
- 2.-Irakasle askatuak ez dira gure herrietara azaltzen.

- 3.-Liberatuen lana eta eginkizuna ez ditugu garbi ikusten; beraz, ez daukagu zergatik ordaindurik.
- 4.-Berriro ere gure artean hitzegin behar dugu diote beste batzuek. Aitzaki eta maitzaki, bakoitzaren lanaz aparte bost axola guri!

Lehenengo eta bigarren arrazoinak, hein batetan, egiazkoak dira; esan bezala ulertzekoak; baina azkeneko bi puntuei begira, besteen bizkar zama uzterik ez dugu onartzen, gisa batera edo bestera guztiok probetxatzen bait dugu eta parte hartzen ikastolaren historian. Erabakiak guztion artean hartuak direnez gero, erantzutea ere guri dagokigu.

Orain arte esandako arrazoinak ez dira aski ordaintzeari uzteko. Jakina, liberatuek, herri etako arazo eta kezken aurrez-aurre egon beharko lukete, eta benetasunez gure beharrei erantzun. Honela gertatzen ez denean, aski ote beste gaberik ordaintzeari uztea?

Esku artean dugun egiteko honetan badugu bai burruka kutsua eta fama. Non ordea ispirituhorren agerpena? Ez ote kanpoko haize burrundaren balantzarekin gure oinarri kaxkarrak aidean?

Hala ere, balantzaren erdian lehenxoago edo geroxoago, gure arrazoinak bidea bilatzen eta aurkitzen ekinen duela itxaro dut.

Maritxu Narbarte

47

DIN DAN... BOLERAN

1) Irakurketa kursiloaren arrakasta.-

Abenduaren 11-12an irakurketa metodoaz i kastaldi laburra hain ezaguna dugun Marta Mata-ren zuzendaritzapean. Uste baino jende gehiago eta interes handiarekin jarraitu zen. Arrakasta ukan duela ukatzerik. Bera ere gogotik johan zen hemen egin zitzaion abegi onarekin. Aurrerat ere behar dugu zenbait horrelako ikasketaz baliatu.

2) Goi-herriko irakasleek.-

Egun bi hartu dituzte Eguberrietako opo-rraldian, denek batera, eskuartean ari duten lana aztertzeko eta sakontzeko. Hizlari bi ere baziren tartean gaiak emateko, baina behin gaiaren puntu nagusi batzuk eman eta talde lana edo elkarrizketa azkartzen gehiago ahalegindu zirela dio jende-ak. Ea mila puntu bala-bala ukitzea baino batere makurrago ez den, egin dena!

3) Olentzaro.-

Gure pertsonaia hau zokotik ateratzeak, bistan zen, hautsak harrotuko zituela. Dena dela, positiboa izan da aurtengo Eguberrietan Olentzaro-ren aurpegia hainbat eta hainbat lekutan berriro ikustea. Honekin batera hezi-jostailuaren kan-paina egin den lekuetan ez du are arrakasta gutiago ukan.

4) Ortografiari buruzko oharra.-

Bada ohar interesgarri bat guretzat Eus kaltzaindiak johan den azaroaren 26an eginiko bilkuran emana: Bait eta Ba-aurrizkiak nola erabili.

Horra: Ba nahiz afirmatiboa izan (ba dator), nahiz kondizionala (baldin badator) orain arte ez-berdin idazten ziren arren, beti aditzari loturik idatziko da. (badator, baldin badator).

Bait -aurrizkiaren idazkera oraingoz era baki gabe gelditzen da, eta libre izango da nahiz loturik (etorri baita), nahiz aparte (etorri bait da) idaztea.

5) Haurride berria.-

Lehengo denda zen hurbil-hurbilean leku eroso eta egokiago bat hartu da. Izan ere, lehengo a ez material edukitzeko, ez-eta jendea zerbitzatzeko zen behar hainbateko. Pozik izanen dira orain Haurride-ko andereño dendariak eta... jendea ere bai, noski.

B E R R I K E T A R I

&72-1-5an&

NON - ZER

Apurrak	1
Aintzin solasa.	2
Helburuak markatzeko beldur	4
Proletarioei dagokien pedagogia berria. .	14
Ikasleekiko egokitzeaz.	21
Irakurtzen irakasteko metodo berri baten bila.	25
Erljioaz berriro.	30
Euskara Eibarko zenbait ikastetxetan..	35
Heriz-herri... .. .	39
Diru kontuak..	44
din..dan boieran..	47
Non-zer... .. .	49

